

EKINTZAILETZARAKO ETA TURISMO-ENPRESEN LEHIAKORTASUNAREN HOBEKUNTZARAKO LAGUNTZAK - EMET 2024

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK (FAQ)

Pertsonak (fisikoak eta juridikoak) jardunean egon behar dira laguntza bat eskatu ahal izateko?
<p>Turismo-negozio berriak sortzeko ekintzailetzarako laguntzen leerroari” laguntza eskatzen dioten pertsonak (fisikoa edo juridikoa) (I. eranskina) laguntza eskatzen duten establezimenduan edo negozioan jarduera egiten egon beharko dute eskabidea aurkezteko unean, eta alta eman beharko dute Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroan (REATE)* edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ), laguntzaren xede den jarduerari dagokion epigrafean, salbu eta eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren abiaraziko direla aurreikusten bada; kasu horretan, baldintza hori 2025ko urtarrilaren 11a baino lehen bete beharko dute..</p> <p>* Ostatu-enpresa turistikoak, bitartekaritza-enpresak, turismo-gidariak eta autokarabanentzako harrera-eremu bereziak.</p>
<p>“Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntzen lerroako” laguntza eskatzen duten pertsonak (II. eranskina) laguntza eskatzen duten establezimenduan edo negozioan jarduera egiten egon beharko dute eskabidea aurkezteko unean, eta Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroan (REATE)* edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egon beharko dute, laguntza eskatzen duten jarduerari dagokion epigrafean, 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen.</p> <p>* Ostatu-enpresa turistikoak, bitartekaritza-enpresak, turismo-gidariak eta autokarabanentzako harrera-eremu bereziak.</p>
Otorduak etxera eramateko prestatzen dituen establezimendu bat onuradun izan al daiteke?
<p>Agian. Zerbitzu hori eskaintzen badu soilik, EZIN DA onuradun izan laguntza programari dagokionez ez dituelako “Sukaldaritza-enpresa” (jaketxeak, tabernak, kafetegiak eta tankera horretako establezimendu finkoak, publikoari oro har irekiak, tokian bertan kontsumitzeko otorduak eta edariak eskaintzen dituztenak modu ohikoan eta profesionalean) izateko baldintzak betetzen. Bestalde, zerbitzu horrez gain tokian bertan kontsumitzeko otorduak eta edariak eskaintzen baditu, onuraduna IZAN DAITEKE. Ikus Agindu arautzaileko 3.3 artikulua.</p>
Tabernak onuradun izan daitezke? “Sukaldaritza-enpresa” kategorian sartzen dira?
<p>BAI, jabetxe-enpresatzat hartzen dira, baldin eta lokalean kontsumitzeko janariak eta edariak eskaintzen badituzte.</p>

Otorduak saltzen dituen furgoneta bat, onuradun izan daiteke?
Ez, laguntza programari dagokionez ez dituelako “Sukaldaritza-enpresa” (jatetxeak, tabernak, kafetegiak eta tankera horretako establezimendu finkoak , publikoari oro har irekiak, tokian bertan kontsumitzeko otorduak eta edariak eskaintzen dituztenak modu ohikoan eta profesionalean) izateko baldintzak betetzen. Ikus Agindu arautzaileko 3.3 artikulua.
Lehiakortasuna hobetzeko laguntzen lerroan (II. eranskina), espazioak eraberritzeko eta berregokitzeko obrak diruz lagun daitezke?
Ez, sukaldeak egokitzeko obrak baino ez dira diruz lagunduko, sukaldeak bezeroen aurrean zati batean edo osorik irekitzeko; halaber, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna erraztuko duten oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako berrikuntzak ere lagunduko dira.
Diruz lagundu al daiteke aire girotuaren instalazioa?
Klimatizazio-ekipoak (beroa/hotza) berritzeko edo hobetzeko jarduerak ez dira diruz lagunduko. Bai, ordea, berokuntza, klimatizazio, aireztapen eta ur bero sanitarioko instalazio termikoetan energia konbentzionalaren ordeztasun berriztagarriak jartzea.
Diruz lagundu al daiteke dauden argiztapen-sistemen ordeztasun sistema efizienteagoak jartzea?
Instalazio elektrikoa berritzeko inbertsio baten barruan integratuta badago, bakarrik.
Zer nolako jardueretarako eska dezakete dirulaguntza erabilera turistikoko etxebizitzek?
Kontuan hartuz Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 36. eta 38. artikuluen arabera erabilera turistikoko etxebizitzak ostatu- enpresa turistikotzat hartzen direla, ez turismo-ostatuko establezimendutzat , Agindu arautzailearen I. Eranskineko eta II. Eranskineko 2.1.1/2.1.2/2.2.1 ,2.3.1 eta 2.3.2 apartatuetan jasotako jardueretarako eska dezakete dirulaguntza, betiere horietako bakoitzean eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.
Turismo-enpresa bati alokatutako lokal baten jabe den erakundeak eska al dezake laguntzarik aipatu lokal horrentzat?
Ez, onuraduna turismo-jarduera garatzen duen enpresa da eta, ondorioz, errentaria da, kasu honetan, laguntza eska dezakeena.

Erabilera turistikoko etxebizitzaren enpresa “kudeatzaile” bat, onuradun izango litzateke bitartekaritzako turismo-enpresa gisa?

Erabilera turistikoko etxebizitzaren titularra izan gabe, horiek “kudeatzen” dituen enpresa bat, bitartekaritzako turismo-enpresatzat hartu ahalko da eta, ondorioz, laguntza programaren onuradun izan, betiere turismo-arloko aholkularitza-, bitartekaritza (merkaturatzea)- eta antolaketa-zerbitzuak profesionaltasunez eta ohikotasunez ematen baditu. Enpresa horren helburua, izaera eskusibokoa izan gabe, turismo-enpresen eskaintzak merkaturatzea bada (kasu honetan, turismo-erabilerarako etxebizitzak), bidaia konbinatua izan gabe, "Turismo-bitartekari" figuraren araberakoa izan ahalko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 59.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera. Turismo bitartekariak, jarduera garatu ahal izateko, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan (ETEJE) inskribatuta egon beharko dira eta aipatutako legearen laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa betetzea.